

2. kasu praktikoa

Baltzu kolektiboa-bazkidearen salbuespenak

T garraio enpresa baten jabea da. Bere kamioiak X-S.C. tailerrera eramaten ditu normalean arazoak dituztenean. 2010eko uztailak 15ean kamioi horietako batek istripu bat du Etxegaraten eta beti bezala X-S.C. tailerrera eramaten du konpontzera. S, sozietatearen bazkide eta gestorea dena, aspaldian haserre dago T.rekin beti berandu eta protesta eginaz ordaintzen duelako eta mendeku moduan „oparitxo“ bat egitea erabaki du kamioia konpontzen ari zen bitartean. S.ek kamioiak daraman zaman kalte batzuk eragiten ditu. Baina gidaria konturatu egiten da eta T-ri esaten dio. Kalte horiek 1.000 €tan baloratu dituzte, baina lanpetuta dabiltzalako ez dute erreklamazioa momentuan egiten.

2011ko Gabonak iritsi aurretik Tk jakiten du X-S.C. baltzuak arazo ekonomikoan dituela eta bere bazkide den Sk ere. Orduan erabakitzen du beste bazkidea den R-ri erantzukizuna eskatzea aurreko urtean izandako kalteengatik. Eskaera hori burofax baten bitartez egiten du.

Rk erantzuten dio ez duela ordainduko alde batetik akzio preskribatuta dagoelako eta bestetik oraindik 2.000€ko zorra duelako Tk sozietatearekin.

Rk Srekin komentatzen du gertatutakoa eta honek esaten dio ez ordaintzeko inolaz ere, ez berak ez sozietateak ez dutelako dirua jarriko baldin eta biguntzen bada eta diru hori ordaintzen badu.

Galderak:

1. Ahal dio Tk Rri erantzukizuna eskatu?
2. Rk ordaintzen badu, ahalko dio sozietateari diru hori eskatu?

